

ANTZERKIA

Deskribapena: Kike, antzoki bateko eszenatokian ageri da Aitziber Garmendia eta Iker Galartzakin elkarrizketan.

Kike: “Aizue, eta zuek inor hil al dezue parrez?”

Aitziber: “Hil, hil, ez baina estuasunen bat edo beste pasau, bai ala?”

Iker: “Bai, bai, gu Erandion. Andoni Agirregomezkorta eta biok eszenatokin gendela bat e, arnasai buelta eman ezinik geatu zan eta azkenen, botaka botaka botaka, konortea ere galdu zun eta anbulantzik eta dena etorri behar izan zuten.”

Kike: “Ez da egia izango!”

Iker: “Bai, bai, bai.”

Aitziber: “Bai, neri hori ere behin gertau zitzaiten. Ainhoa Garai eta biok ginen “Bajinaren bakarrizketak” herri txiki batean, ez dakit ze herri zan txiki-txikie. Ta klaro herri txiki hoitan ba, atze-atzean ziren andrek hola hasieran lotsauta bezela parrez baino geo ja berotu zien ta haitako bat parrez hasi zan ezin buelta eman, ezin buelta eman, arnasik hartu be ta hola, mareau edo desmayau behintzat kanpoa atea zuen baina bueno, gero pasa zitzaion.”

Kike: “Eta zuek noiz ohartu zineten sein komikoa zeneukatela?”

Iker: “Ba nei amak esaten ziten “Etzak tontona in!”, bai, ba beti hoixe, beti ohitura begik oker, “beida ze ikasi deten ama!” ta belarri bat muitzen ta geo hurrengua bestia ta gero orain gure aittai esaten dio “beida, tontona itten, tontona itten ta oan pagatu iteie, ze gehio behar da ba!””

Aitziber: “Ni re bai, ni txikitatik espektakulua ematen beti, ta amak beti esaten “zu pailazotako aproposa umea, pailazotako aproposa” ta egia esan, ba beti nik uste pailazo zea hola izaera komiko hoi betidanik eukitzen dala ta geo bestela ere ikasi leike baina betidanik izango ginen gu antzekok.”

Kike: “Zuek telebistan eta antzerkian aritu zeate. Alde haundia al dago umorea batean lantzetik bestean lantzeraz?”

Aitziber: “Bai, bai oso diferentek.”

Iker: “Presak, telebistan beti presak. Hoixe pasatzen da ta txiste batzuk bidean galtzen direla ni konturatzen naiz ta gure sketch-etan eta ere esatezu “jo, hau ez tek ulertu, ez tek ulertu” eske presakin ez diegu etxean daonai kanbiatzeko aukeraikan eman nahi, dena azkar eta bapatean bota nahi degu...”

Kike: “Eta antzerkian?”

Aitziber: “Antzerkin, egie da, zuk hartzen dezu denbora, zu zare gainean, antzerkik politta daukena da momentuko hartu-eman hori daukazula eta publikoki ez da dana inprobisazioa baino asko re bai. Ta geo askotan, jo Ikerrek askotan publikokin hitz egin itten do, oain ai gean emanaldin ba esaldi bat badauke esaten dona, “ba, igualtzat, e gutxitan txorta itten badet ere, txortan itten badet ere” ta ja publikok parre itten do ta esaten do...”

Iker: “Bueno, bakarren bat, e, bakarren bat, e...”

Aitziber: “Bai, ta ja horri begiratuz hitz egiten dio “bueno, hilean behin ingo badet ere, zer da gutxi?” Ta ja esta, ja horrekin poltsikon sartzeittu seittun.”